# I ARABAKO FORU ALDUNDIA
# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Zerga Premiatasuneko Araugintza Dekretuak*

**6.882**

**6/2006 ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUA, urriaren 31ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, hiriko eta errepide bidezko garraio publikoaren aseguru eragiketen Aseguru Sarien gaineko Zergan hobaria onesten da eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga aldarazten da aseguru, berraseguru eta kapitalizazio eragiketei ezarri zitzaien salbuespena 2002/92/CE Zuzentarauari egokitzeko.**

Uztailaren 17ko 25/2006 Legearen bidez, enpresa berrantolakundeen eta portu sistemaren zerga eraentza aldatzen da eta osasun sistema eta errepide bidezko garraioaren sektorea finantzatzeko zerga neurriak onartzen dira. Izan ere, lege horren bitartez, Gobernuaren eta errepide bidezko garraioaren sektorearen artean adostutako legegintzazko zerga neurriak ezartzen dira, erregaien prezioa etengabe eta bizkor igotzeak dakarren egoerari aurre egiteko. Esangura horretan, lege horren arabera, Aseguru Sarien gaineko Zergan %75eko hobaria izango dute merkatugaien edo bidaiarien hiriko eta errepidezko garraio publikoaren arrisku aseguruen eragiketetan.

Europako Parlamentuaren eta Batzordearen abenduaren 9ko 2002/92/CE Zuzentaraua antolamendu juridiko espainiarrean sartzearekin derrigorrezkoa da aseguru pribatuen tartekaritzari buruzko arautegian aldarazpen garrantzitsuak sartzea. Aldarazpen horiek aseguru eta berraseguru pribatuen tartekatzeari buruzko uztailaren 17ko 26/2006 Legearen bidez egin dira; lege horrek aldarazpenak eragin ditu Balio Erantsiaren gaineko Zergaren arautegian.

Zerga-premiazko Araugintzako Dekretu honen bitartez xedapen orokor horretan Aseguru Sarien gaineko Zergaren eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren gainean ezartzen diren neurriak sartu nahi dira Arabako zergen sisteman, Kontzertu Ekonomikoan ezarritakoarekin bat etorriz.

Hain zuzen, Aseguru Sarien gaineko Zergan hobaria ezarriko da merkatugaien edo bidaiarien hiriko eta errepidezko garraio publikoaren arrisku aseguruen eragiketa zehatz batzuetarako.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez, salbuespena sartu da aseguru, berraseguru eta kapitalizazio eragiketak egitean parte hartzen duten alderdien arteko kontratua egiteko bitartekaritza zerbitzuetarako.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena ikusi da.

Horiek horrela, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan eztabaidatu ondoren, Arabako Zergei buruzko maiatzaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 8. artikuluak eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak foru aldundiari aitortzen dizkioten eskumenak baliatuz, premiazko arrazoiengatik, ondokoa

XEDATU DUT:

1. artikulua.- Hobaria hiriko eta errepidezko garraio publikoaren aseguru eragiketen aseguru primen gaineko zerga-zorrean.

2006. urtean, Aseguru Primen gaineko Zergan %75eko hobaria izango dute merkatugaien edo bidaiarien hiriko eta errepidezko garraio publikoaren arrisku aseguruen eragiketetan, baldin eta ondoko inguruabarrak gertatzen badira:

a) Garraio ibilgailuetan doazenen istripu-arriskuak, garraio ibilgailuek jasandako kalteak edo garraiolariaren erabilera eta zirkulatzeagatiko erantzukizun zibila, eta garraiatutako merkatuegien kalteengatiko erantzukizuna edo garraiolariaren bestelako erantzukizuna estaltzea.

b) Saria 2006. urtean ordaintzea eta epealdi horretako arriskuak estaltzea.

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Decretos Normativos de Urgencia Fiscal*

**6.882**

**DECRETO NORMATIVO DE URGENCIA FISCAL 6/2006, del Consejo de Diputados de 31 de octubre, que aprueba la bonificación en el Impuesto sobre las Primas de Seguros de las operaciones de seguro de transporte público urbano y por carretera, y modifica el Impuesto sobre el Valor Añadido para adecuar a la Directiva 2002/92/CE. la exención a las operaciones de seguro, reaseguro y capitalización.**

La Ley 25/2006, de 17 de julio, por la que se modifica el régimen fiscal de las reorganizaciones empresariales y del sistema portuario y se aprueban medidas tributarias para la financiación sanitaria y para el sector del transporte por carretera, establece medidas legislativas en materia fiscal acordadas por el Gobierno con el sector del transporte por carretera, con el objeto de paliar la situación generada por la constante y acelerada elevación que viene experimentando el precio de los combustibles. En ese sentido, la citada Ley establece una bonificación del 75 por 100 en el Impuesto sobre las Primas de Seguros para determinadas operaciones de seguro relacionadas con el transporte público urbano y por carretera de mercancías y viajeros.

Por otra parte, la incorporación de la Directiva 2002/92/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 9 de diciembre de 2002, al ordenamiento jurídico español ha hecho necesaria la introducción de importantes modificaciones en la normativa de mediación de seguros privados, modificaciones que se han llevado a cabo a través de la Ley 26/2006, de 17 de julio, de mediación de seguros y reaseguros privados, Ley que introduce modificaciones en la normativa del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Mediante el presente Decreto Normativo de Urgencia Fiscal se pretende incorporar al sistema tributario de Álava las medidas contenidas en dichas disposiciones generales en relación con el Impuesto sobre las Primas de Seguros y el Impuesto sobre el Valor Añadido, de conformidad con lo dispuesto en el Concierto Económico.

En concreto se procede a establecer una bonificación para determinadas operaciones de seguro relacionadas con el transporte público urbano y por carretera de mercancías y viajeros en el Impuesto sobre las Primas de Seguros.

Por lo que respecta al Impuesto sobre el Valor Añadido, se introduce la exención para los servicios de mediación para la celebración del contrato entre las partes intervinientes en la realización de las operaciones de seguro, reaseguro y capitalización.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy, en uso de las atribuciones que concede a la Diputación Foral el artículo 8 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava y la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, -de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava-, por razones de urgencia,

DISPONGO:

Artículo 1.- Bonificación en el Impuesto sobre las Primas de Seguros de las operaciones de seguro de transporte público urbano y por carretera.

Durante el año 2006 tendrán una bonificación del 75 por 100 en el Impuesto sobre las Primas de Seguros las operaciones de seguro relacionadas con el transporte público urbano y por carretera de mercancías o viajeros en las que concurran las siguientes circunstancias:

a) Que cubran los riesgos de accidentes personales de los ocupantes de los vehículos de transporte, de daños propios sufridos por los vehículos de transporte y de su responsabilidad civil por uso y circulación, de daños sobre las mercancías transportadas o de cualquier otra responsabilidad civil del transportista.

b) Que la prima del seguro se devengue en el año 2006, con una cobertura máxima de un año y cuyo período de cobertura se inicie en el mismo ejercicio.

Aseguru erakundeek aseguruak kontratatzen dituztenei Aseguruen gaineko Zerga jasanarazi nahi badiete eta haiek hobari hau aplikatzeko eskubidea badute, bereiz zainpetuko dituzte kargatasa aplikatuz sortzen den kuota eta hobaria aplikatuz sortzen dena.

Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua indarrean jarri zenetik bi hileko epean, erakunde aseguratzaileek zergaren eragina erregularizatuko dute, aseguru kontratuen hartzaileei hobaria aplikatuz, baldin eta hobarirako eskubidea badute, 2006ko hasieratik zerga premiazko araugintzako dekretu hau indarrean jartzen denera arte sortutako sariei dagokienez.

2. artikulua.- Honako aldaketa egin da Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuan:

2006ko uztailaren 19tik aurrerako indarrarekin aldarazi egin da Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Foru Arauaren 20. artikuluaren lehen idatz-zatiaren 16. zenbakia. Idazkuntza berria hau da:

“16. Aseguru, berraseguru eta kapitalizazio eragiketak.

Aldi berean, tartekaritza zerbitzuak, eta horien barruan sartzen dira arestian aipatu diren eragiketa horietan esku hartzeko bezeroak lortzeko tartekaritza zerbitzuak, zerbitzu horiek egiten dituena enpresaburua edo profesionala izatea gorabehera.

Aseguru eragiketen barruan aurreikuspen modalitateak sartzen dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Indarrean izatea.

Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean xedapena hau, eta egun horretatik aurrera izango ditu ondorioak bere edukian xedatutakoak.

Bigarrena.- Gaitzea

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezko diren bestelako xedapenak emateko.

Hirugarrena.- Biltzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga-Premiazko Araugintzako Dekretu hau Arabako Biltzar Nagusietara bidaliko da baliozkotu edo ezezta dezaten, indarrean dagoen arautegiarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko urriaren 31.– Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

La repercusión del Impuesto sobre las Primas de Seguros por las entidades aseguradoras a las personas que contraten los seguros que tengan derecho a la bonificación anterior se realizará consignando en el recibo, de forma separada, la cuota resultante de aplicar el tipo de gravamen y la cuota resultante de aplicar la bonificación.

En el plazo de dos meses desde la entrada en vigor del presente Decreto Normativo de Urgencia Fiscal, las entidades aseguradoras regularizarán la repercusión del Impuesto, aplicando la bonificación a los tomadores de los contratos de seguros que tengan derecho a la misma respecto de las primas devengadas entre el inicio de 2006 y la fecha de entrada en vigor del presente Decreto Normativo de Urgencia Fiscal.

Artículo 2.- Modificación del Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Con efectos desde el 19 de julio de 2006, se modifica la redacción del número 16º del apartado Uno del artículo 20, del Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, en los siguientes términos:

“16.º - Las operaciones de seguro, reaseguro y capitalización.

Asimismo, los servicios de mediación, incluyendo la captación de clientes, para la celebración del contrato entre las partes intervinientes en la realización de las anteriores operaciones, con independencia de la condición del empresario o profesional que los preste.

Dentro de las operaciones de seguro se entenderán comprendidas las modalidades de previsión.”

DISPOSICIONES FINALES

Primera.- Entrada en vigor.

La presente disposición general entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, sin perjuicio de los expresos efectos previstos en su contenido.

Segunda.- Habilitación.

Se autoriza a la Diputación Foral de Álava para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente disposición general.

Tercera.- Remisión a Juntas Generales.

Este Decreto Normativo de Urgencia Fiscal se someterá a las Juntas Generales de Álava, para su convalidación o revocación, de conformidad con lo establecido en la normativa vigente.

Vitoria-Gasteiz, a 31 de octubre de 2006.– Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA. Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

***Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak***

**6.396**

**68/2006 FORU DEKRETUA, urriaren 11ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Gazteriaren Foru Erakundearen zerbitzupeko langileen ordainsariak arautzen dira 2006rako.**

625/2006 Erabakia, uztailaren 18ko Diputatuen Kontseiluarena –Arabako Lurralde Historikoaren 2006ko irailaren 1eko ALDIZKARI OFIZIALean argitaratua. Honen bidez Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko funtzionarioen ordainsarien igoera onartzen da 2006rako.

Ordainsariak direla-eta funtzio publikoan indarrean dagoen araubide juridikoa Funtzio Publikoa Eraberritzeko Neurrien abuztuaren 2ko 30/84 Legeak, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/89 Legeak, horiek garatzen dituzten zenbait arauk eta, batez ere, Euskal Herri Administrazioetako Funtzionarioen Ordainsariei buruzko uztailaren 30eko 207/90 Dekretuak arautzen dute.

Horiek horrela, arauon arabera, oinarrizko sarien zenbatekoak Estatuko 2006rako Aurrekontu Orokorren abenduaren 29ko 30/2005 Legean ezartzen dira, eta berorren 19.2 artikuluan xedatzen denez, 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera administrazio publikoko langileen ordainsariek, geroratuek barne, ezin izango dute guztira 2005eko ordainsariekiko % 2 baino gehiago igo. Igoera horrek, aipatutako artikuluko seigarren paragrafoak xedatutakoaren arabera, oinarrizko izaera du.

***Decretos Forales del Consejo de Diputados***

**6.396**

**DECRETO FORAL 68/2006, del consejo de Diputados de 11 de octubre, regulador de diversos aspectos de las retribuciones del personal al servicio del Instituto Foral de la Juventud-Gastediaren Foru Erakundea para 2006.**

Mediante Acuerdo 625/2006, de 18 de julio, del Consejo de Diputados, publicado en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava el 1 de septiembre de 2006, fue aprobado el incremento de retribuciones del personal funcionario de la Administración General de esta Diputación para el 2006.

El régimen jurídico vigente de la Función Pública, en lo que se refiere a la materia de retribuciones, está regulado por la Ley 30/84, de 2 de agosto, de Medidas para la reforma de la Función Pública, por la Ley 6/89, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, así como por diversas normas de desarrollo y, singularmente, por el Decreto 207/90, de 30 de julio, de Retribuciones de los Funcionarios de las Administraciones Públicas Vascas.

De acuerdo con dichas normas, las cuantías de las retribuciones básicas se fijan en la Ley de Presupuestos Generales del Estado, Ley 30/2005, de 29 de diciembre, que para el año 2006, establece en su artículo 19.2 que “Con efectos de 1 de enero del año 2006, las retribuciones del personal al servicio del sector público, incluidas, en su caso, las diferidas, no podrán experimentar un incremento global superior al 2 por ciento con respecto a las del año 2005”. Dicho incremento tiene carácter básico según establece el apartado seis del mismo artículo.